

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

344 - 2026ko MARTXOA

IRAGANA GOGOAN,
ORAINA JAI GIROAN

CEDERNA GARALURREK NEKAZARITZA ETA ELIKADURARI LOTUTAKO SAIO IREKIAK ANTOLATU DITU

Cederna Garalurreko Elikadura Dinamizatzaileak saio irekiak antolatu ditu Mendialdean, otsailean zehar. Nekazaritzan eta elikaduran interesa duen oro gonbidatuta dago, eta saio horien helburua bikoitza da. Batetik, Cederna Garalurretik elikadurari lotuta lantzen ari diren proiektu eta ekintzak ezagutzera eman nahi dituzte (Mendialdeko Azoka Ibiltaria, Mendialdea Elikagaiak Katalogoa, edota ekoizpenari lotutako formakuntzak, esa-

terako). Bestetik, gaiarekiko interesa dutenek zein behar duten adieraztea eta Cedernatik egiten ari diren ekimenei buruz euren iritzia ematea nahi dute. Bereziki, ekoizpenean ari direnen edo aritu nahiko lituzkeenen ikuspegia nahi dute jaso.

2026an ere Mendialdeko Azoka Ibiltaria Mendialdea Elikadura proiektutik bultzatu diren ekimenen artean, nagusietakoa Plazaola Partzuergoarekin eta eskual-

deko udalekin batera antolatzen duten Mendialdeko Azoka Ibiltaria da. Aurten goa 7. edizioa izango da, eta 5 herrietan egiteko asmoa dute, apiriletik hasita, eta urrira bitarte.



Errigorako bi saskiak banatu ditu Mailopek harpidedunen artean



Mailope aldikaritik zorionak eman nahi dizkiegu aurtengo Errigorako saski ederraren irabazleei: Ione Miren Aguirre Zubillaga eta Mikel Hernandorena Anton. Zorionak bikote! Ziur gaude bertako zapore ezin hobeak gozatuko dituzuela.

Eta gainerako bazkideei... mila esker gure komunitatea partekatzeagatik.

Gogoratu, urtero antolatzen ditugula halako zozketa bereziak bazkideentzat. Beraz, orain da unea! Egin zaitez bazkide gaur bertan eta izan zozketako hurrengo saritua!

02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Aralarretik San Migelera"

8

ERREPORTAJEA
Tradizioa, auzolana eta kudeaketa profesionala ezinbestekoak dira Araitz eta Beteluko hilerrietan Imanol Iriarte (Arribe) eta Lontxo Zubillaga (Betelu)



12

BATZARRE

14

ERREPORTAJEA
Lekunberriko ur hornikuntzaren polemikatik, egokitzapenera Jose Luis Goldarazena (Lekunberriko bizilaguna), Gorka Azpiroz (Lekunberriko Taldeko zinegotzia) eta Arkaitz Goikoetxea (Lekunberriko alkatea)



18

KULTURA

28

PLAZATIK PLAZARA
"Ez dugu pop musikarik sortzen" Enrike Solinis Azpiazu (Bilbo / Azkarate)



31

AGENDA

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:
Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruiz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpiroz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzia eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:
Ainhoa Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:
Adrian Dos Santos, Ainhoa Beraza, Ane eta Jose, Araizko Udala, Gorka Azpiroz, Ibai Tolosa, Imanol Iriarte, Ione Miren Aguirre, Juan Antonio Garaikoetxea eta Kemen Aldabe.

· PUBLIZITATEA:
Irati Moreno - 660 476 041
info@mailope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.



Garai Otxotorena Gonzalez

Otsailaren 23an, 2 urte.

Segi beti bezain irribarretsu potxolo.
Izugarri maite zaitugu txiki!
Musu handi bat.



Amaia Urriaga Sotil

Martxoaren 5ean, 5 urte!
Zorionak guztion partez!
Musu handi bat.

Unai Amoztegui Goikoetxea

Martxoaren 12an, 10 urte!

Zorionak eta urte askotarako!
Musu eta besarkada estu bat etxeko
guztien partez.



Aran Rodriguez Etxarri

Martxoaren 16an, 6 urte.

Zorionak, polita!
Eskerrik asko horrenbesteko
maitasuna familiara
ekartzeagatik!
Asko maite zaitugu.
Zure familia.

**Manu Mindeguia
Urrestarazu**

Martxoaren 5ean, 3 urte!

Zorionak! Egun polita pasal!
Musu bat familia guztia partez.



Ander Buldain De la Rosa

Martxoaren 26an, 9 urte.

Zorionak, Ander!
Oso ongi pasa zure
urtebetetzear!
Musu handi bat familia
guztiaren partez.



Xua Urkola Estanga

Martxoaren 3an, 3 urte.

Zorionak, Xua. Asko matte zattugu.
Musu bana Amets, amatxo, atte, izeba,
osaba eta atton-amonen partez.



Naroa Leoz Urbizu

Martxoaren 15ean,
3 urte.

Zorionak, politena!
Bizkotxo goxo
batekin ospatuko
dugu zure eguna!
Musu erraldoi bat
zure familiaren
partez.



Mailope aldiakaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
15a baino lehen.



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croissant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com



ERREPIDEETAKO GATZAK IBILGAILUAK KALTETU DITZAKE

Azken hilabeteetan izandako tenperatura baxuek eta Aralar inguruko eremu garaietan izan diren elurteen ondorioz, errepideetako izotza kentzeko gatzak erabiltzea ezinbestekoa izan da.

Gatzak izotz-plakak murrizten laguntzen du baina ibilgailuetan herdoila eragin dezake.

Gainera, gatzaren, uraren eta izozte-desizozte zikloen konbinazioak asfaltoaren hondatzea errazten du, eta pitzadurak eta zuloak sortzeko probabilitatea areagotzen da.

Arazoa ekiditeko ibilgailuak maiz garbitzea gomendatzen da, gatzaren eragin negatiboa murrizteko.



JUBILATUEN TABERNA KUDEATZEKO PLEGUA ONARTU DU LEKUNBERRIKO UDALAK

Urtarrilaren 29an, Udalak Jubilatuen etxeko taberna kudeatzeko plegu berria onartu zuen.

Udaletik apustu handia egin nahi dute Jubilatuen Etxea gune dinamikoa izan dadin. Halaber, zahartze aktiboa eta belaunaldien arteko harremanak uztartu nahi dituzte.

Izan ere, taberna zerbitzuaren ordutegia eta funtzionamendua behar bezala zehaztuz, jantoki komunitario bat sortzea da helburua, bakardade egoeran dauden herritarrei arreta eskaintzeko, elikadura osasungarria lantzeko eta tokiko merkataritza sustatzeko.



NEKAZARITZAKO IBILGAILU ETA MOTORREN AZTERKETA TEKNIKOA ESKAINIKO DUTE ESKUALDEAN

Pasa den urtean bezala, aurtan ere eskualdeko nekazaritzako ibilgailu eta ziklomotorren azterketa teknikoa egiteko aukera eskainiko dute.

Horretarako, unitate mugikorra hurrengo puntuetan izango da:

Errazkinen martxoaren 2an (09:30-11:30), Azpirotzen egun berean (12:15-14:00); Atallun martxoaren 3an (09:45-14:00) eta Betelun martxoaren 4an (9:45-14:00).


Ekimen horren bidez, landa eremuko zerbitzuak herrira gerturatzekeo apustua bultzatu nahi dute, tokiko nekazarien beharrei erantzuteko.

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu 948 30 35 86 telefono zenbakira.

► Kemen Aldabe Alustiza (Lekunberri)



*Txikia dena sarri borrokan
aritzen da kolpez kolpe
laguntzak jasoz eta lortuaz
merezi adina ospe
bertso honekin aprobetxatuz
gauza bat esan nahi nioke
sortu zenetik aldizkarian
lan egin dunari tope
eskerrik asko bihotz-bihotzez
zuek zarete Mailope.*



Doinua: Haizea dator ifarraldetik, Xabier Lete (moldatua). **Hurrengoa:** Aritz Eskudero Larralde (Errazkin).



Amona Mantangorri (Larraun).

IRITZIA

PEDIATRA ZERBITZUA ESKUALDEAN ORAIN

Gauza jakina da gure eskualdean azken urte luzeetan pediatra zerbitzuak gorabeherak izan dituela eta ez dela modu egonkorrean eskaini. Egun, eta abenduaz geroztik, Lekunberri eta Larraungo osasun etxean ez da pediatra zerbitzurik umeak artatzeko, eta horrek eragiten du bertako eta baita Araitz eta Beteluko haurrak ere, Leitzaiko edota Irurtzungo osasun etxeetara bideratzea. Ume kopuru handia izan arren (460), familiok ezin dugu gure seme-alabentzat oinarritzko osasun-arreta espezializaturik jaso bertan.

Haurren osasuna eskubide unibertsala da, eta administrazioaren betebeharra da eskubide hori bermatzea, bizi garen tokia edozein delarik ere. Pediatra-zerbitzurik ez izatea familia eta gurasoon kezka eta arazo izatetik harago, herritar eta biztanle orori eragiten dion auzia da, izan ere, osasun-zerbitzu egokia izatea bizigarritasunaren oinarria da. Oinarritzko zerbitzu publiko honen gabeziak eskualdearen etorkizuna baldintzatzen du eta funtsean, herri txikietan bizitzea zailduko du ezinbestean, landa-eremuak bizirik mantentzeko ahalegina seriozki zamatuz.



Gaurko zerbitzuen antolaketa hau ez da eskubidezkoa, berriki aipatutakoaz gain, lurralde-desoreka eta bazterkeria ere sortzen baititu (garraio arazoak gehituz, irisgarritasuna zailduz, deslektutzea eraginez, ...). Horregatik da garrantzitsua denok egoeraren jakitun izatea.

Osasun-arreta ez da kontu abstraktu bat, egunerokoan eragiten digun errealitatea da. Eta, are, pediatra-zerbitzua ez da pribilegio bat: behar bat eta eskubide bat da. Hori hala, Osasunbideari eskualdean pediatra zerbitzua jartzeko eskatzeko biltzen hasi gara inguruko guraso talde bat. Sare eta komunikabideetan emanen dugu gure ekimenen berri, eta herritarren ulermena eta inplikazioa biziki eskertuko ditugu.

Eskualdeko kaltetutako familiak

URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza

CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



ekin
rotulación
948 85 32 79



SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Hurrengoa:

Iker Yaben Mariñelarena (Lekunberri)




Adrian Dos Santos Garro
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Aralarretik San Migelera

Ibilbidea: joanekoa
Distantzia: 9 km
Desnibela: +659 m
Zailtasuna: gogorra



Zergatik aukeratu dut?


Zirkularra ez den ibilbide bat egin nahi nuen eta Aralarretik San Migelera joateko ibilbide hau ederra eta aproposa zela iruditu zitzaidan.

Bidea:

- 1 Iribas herriko sarreran dagoen aparkalekuan utziko dugu autoa, bertan inguruko ibilbide ezberdinetako mapa ikusiko dugu.
- 2 Aitzarratetako iturbururantz joango gara eta 1 km-a igarota bidegurutzean ezkerrera egingo dugu.
- 3 Ongi markatutako pistak eta senda harritsuak igaroko ditugu baina arriskurik gabekoak, neguan erne, lokatzaren ondorioz irristakorra izan daiteke.
- 4 5 km-an basoa utziko dugu eta Atatik datorren pistara azalduko gara, eskuinera egingo dugu 600 m eta berriz ezkerraldean dagoen basoko pistatik jarraituko dugu.
- 5 8 km-an San Migel Eliza ikusiko dugu, mantso joango gara harri asko dagoen pistatik eta berehala errepidera iritsiko gara.
- 6 Azkenik, Elizara iristerakoan taberna ere izango dugu indarrak berreskuratzeke. Adi! Ibilbidea joanekoa da, bueltatzeko ez dago zerbitzurik eta gure kabuz antolatu beharko dugu.

●● Imanol Iriarte (Arribe) eta Lontxo Zubillaga (Betelu).

Tradizioa, auzolana eta kudeaketa profesionala ezinbestekoak dira Araitz eta Beteluko hilerrietan



Arribeko hilerria.

Garai batean, norbait hiltzen zenean, alargunak eta senideak beltzez janzten ziren. Horrekin haien dolua adierazten zuten eta iraupena senidetze-mailaren arabera izaten zen. Etxean gorpua beilatu, hileta-elizkizuna egin, eta gorpua hilkutxan lurperatzen zuten, herriko edo hiriko hilerrian. Gaur egun, berriz, hainbat ohitura eraldatzen ari dira. Orain ia inork ez du lehen bezalako dolurik egiten, eta gero eta gutxiago lurperatzen da.

Beteluko eta Araizko hilerriek bakoitzak bere izaera eta kudeaketa modua dituzte. Lontxo Zubillaga Beteluko alkatea eta Imanol Iriarte Arribeko bizilaguna, egungo egoeraren lekuko dira. Araitzen, dagoeneko mahai gainean jarri dituzte egun gainditu beharreko erronkak eta etorkizunerako proiektu berriak; Betelun, ordea, gogoan dituzte etorkizunerako ideiak eta betebeharrak.

Araizko auzolanetik kudeaketa formalerantz

Duela hamarkada batzuk, Arribe eta Atalluko kontzejuak elkartu zirenean, erabaki argi bat hartu zuten: hilerrien kudeaketa herri bakoitzak bere kabuz egin behar zuen. Ondorioz, Arriberen antolaketa propio bat sortu eta abiarazi zuten. Hasieran, etxe bakoitzeko urtean behin ordaintzeko kuota txiki bat ezarri zuten. Horren bidez, herri-

tarren arteko elkartasun-sistema bat sortu zuten. Izan ere, norbait hiltzen zenean, hilerriari lotutako gastuak diru horretatik ordaintzen baitzituzten. "Nitxoaren tapak, izenen plakak edo kolokazioaren gastuak diru kopuru horretatik ordaintzen genituen", azaldu du Iriartek.

Sistema horrek oso ongi funtzionatu zuen, baina denborarekin bestelako gastuak sortzen hasi ziren. Hilerria

betetzen joan zen, eta gorpu gehiago sartzeko lekua behar zen. Horren ondorioz, Arribeko hilerrian 30 nitxo hustu zituzten, betiere legezko protokoloa jarraituz. Hala, familiei jakinarazi, baimenak lortu eta beharrezko tramite guztiak egin zituzten. Gastu horiek guztiak, urteetan bildutako kuoten bidez ordaindu ziren.

Iriartek azpimarratu duenez, nitxoaren erabilera eta gorpua erraustea gero eta nabarmenagoak dira. Ondorioz, etorkizun hurbil batean, hilerrien kudeaketa profesionalizatzeko plangintza antolatzen hasiak dira.

“Nitxoaren tapak, izenen plakak edo kolokazioaren gastuak diru kopuru horretatik ordaintzen genituen”

Imanol Iriarte

Sistema tradizionala kolokan

Arazo nagusia, ordea, banku-kontua-

rekin sortu zen. “Garai batean bankuan kontu korrante bat izatea errazagoa zen; gaur egun, ordea, lege eta baldintza asko bete behar dira”, azaldu du Iriartek. Horregatik, herritarrek, Arribeko kuoten kontua Arribe-Atalluko kontzejuaren izenean zabaltzea proposatu zuten, baina azkenean kontu hori bertan behera gelditu zen.

Egoera horrek sistema guztia kolokan jarri zuen. “Bizilagunei kuota kobratu beharko balitzaie eta kontu korrante nagusi bat ez balego, etxetik dirua eskatzera joatea beharrezkoa izango litzateke, eta gainera, dirua norbaitek bere etxean gorde beharko luke. Kudeaketa hura ez zitzagun batere egokia iruditzen”, dio Iriartek.

Bestalde, Arribek ez du bere kabuz dirulaguntzak eskatzeko aukerarik, “identitate juridikoa Arribe eta Atalluko kontzejuek baitute”, azpimarratu du. Horrek are gehiago zaildu zuen egoera, batez ere hilerrian beste behar batzuk loratzen hasi zirenean.

Errausketa gero eta ohikoagoa

Azken urteotan, gero eta herritar gehiagok erabakitzen dute gorpua erretzea. Horrek beste erronka bat ekarri du Arribeko hilerriara: errautsak modu egokian gordetzeko espazioa behar da. Horretarako, kolunbarioak —errautsak sartzeko kutxak— jartzeko beharra ikusi zuten.

“Argi ikusten genuen kolunbarioak ezinbestekoak zirela. Alde batetik kuotak ezin genituen formalki kobratu, eta bestetik, hilerrian gauza berriak egin behar ziren”, azaldu du Iriartek. Horren aurrean, herritarrek erabaki zuten kontzejura jozte, eta hilerrien ardura modu ofizialean bere gain hartzeko eskatu zieten.

“Argi ikusten genuen kolunbarioak ezinbestekoak zirela”

Imanol Iriarte



Atalluko hilerria.

Kontzejuaren ardura, herritarren laguntzarekin

Egoera azaltzeko eta irtenbideak adosteko, bi batzar ireki egin zituzten Arriben. "Jende asko azaldu zen, gaiak mahai gainean jarri behar baitziren", dio Iriartek. Batzar horietan erabaki zen etorkizunean edozein inbertsio edo obra egiteko, Arribeko herritarren ordez kontzejuak izan behar zuela kudeaketa formala egiteko ardura.

Beraz, erabaki zuten Arribe-Atalluko kontzejuek, herritarren eta boluntarioen laguntzarekin hilerrien ardura hartzea. "Gu laguntzen jarraitzeko prest gaude, baina kudeaketa profesionalago bat egitea beharrezkoa dela uste dugu", laburbildu du Iriartek.

Gaur egun ere, Arribeko hilerria boluntarioen lanari esker mantentzen da. Herriko bi emakumek, Amaia eta Mari Terek, garbiketa-lanak egiten dituzte, eta hilerria "oso txukun" dagoela nabarmendu du Iriartek. Norbait hiltzen denean, nitxoaren prestaketa, familiari informazioa ematea edo tapa eskatzeko kudeaketa Iriartek egiten du.

"Herritarrek afekzioa diote Arribeko hilerriari; badago txukun edukitzea gustuko duen jendea, eta badago hori horrela mantentzeko interesa", dio. Horregatik, oraindik ere neurri handi batean "duela 50 urte bezala" funtzionatzen dute: jendearen borondateari eta lanari esker.

Hala ere, Iriartek argi du etorkizunera begira aldaketak beharrezkoak izango direla: "Beste modu batera lan egiteko beharra dago". Tradizioa eta egungo errealitatea uztartzea izango da, hortaz, Arribeko hilerriaren erronka nagusia.

"Herritarrek afekzioa diote Arribeko hilerriari"

Imanol Iriarte

Beteluko hilerriaren historia eta gaur egungo kudeaketa

Lontxo Zubillagak, Beteluko alkateak, azaldu duenez, gaur egun erabiltzen den hilerria XIX. mendearen bigarren erdialdean ireki zen, Nafarroan izandako peste baten

ondorioz. Garai hartan, osasun-arrazoiengatik, beharrezkotzat jo zen herrigunetik kanpo hilerri berri bat sortzea, eta horrela finkatu zen gaur egun Olarburu izenez ezagutzen den txokoan dagoen hilerria. Hura, 1850 eta 1890 urteen artean sortu zen. Hilerri zaharra, aldiz, erabat itxita dago. "Tapatua eta sasiz estalia dago, eta ez dakigu zehazki noiz edo nola zabaldu zuten", azaldu du Zubillagak.

Hilerri zaharrean zeuden baldintzak ez ziren egokiak: animaliak askatasunez ibiltzen ziren eta, zenbaitean, hezurak kanporatzen zituzten. Hilerri berriko gorpuk, ordea, babestuago daude; gorpu gehienak lur azpian daude, ez dago nitxorik eta panteoi partikular batzuk baino ez daude. Iraganean, gerrako gurutze batzuk ere bazeuden, Gerra Zibilean hildako herriko gazteen omenez jarritakoak. Hala ere, denboraren poderioz oso hondatuta zeudenez, gehienak kendu zituzten. Halaber, hilerri berriko gorpu kopurua ez da guztiz zehatza, baina argi dago oraindik nahiko leku dagoela.

Zubillagaren arabera, herritarrek



Beteluko hilerria.

ez dute nitxoan beharra bereziki azpimarratu, eta adineko jendeak, oro har, lurperatzea nahiago du. Hala ere, udalak etorkizunera begira, beharrezkoa denean nitxoak eraikitzeke proiektua garatzeko aukera aurreikusi du. Gainera, gaur egungo testuinguruan, errausketak gero eta garrantzi handiagoa du. Araitzen bezala, Betelun ere argi dute hautsak edonon ezin direla bota eta horiek jasotzeko espazio egokiak behar direla.

Mantentzea, auzolana eta etorkizuna

Beteluko hilerriaren mantentze lanak herriko langileen eta boluntarioen laguntzarekin egiten dituzte. Halaber, ingurua egoki mantentzeko lanak auzolanean egiten dira. "Belar luzea ikusten dugunean berehala mozten dugu eta denon artean banatzen ditugu betebeharrak", azaldu du alkateak.

Lurperatze lanak, aldiz, ez ditu udalak zuzenean kudeatzen. Herrian bertan Irache beilatokia dagoenez, hura arduratzen da prozesu osoaz: makineriarekin joan, zuloa egin eta zerbitzu guztia antolatzen dute. Iraganean, lan horiek langabezia zuen edo lan gutxi zuten herritarrek

egiten zituzten, diru pixka bat irabazteko. Gaur egun, ordea, kudeaketa profesionala da, nahiz eta auzolana mantentzen den.

Beteluko hilerriaren kudeaketan ez da premiazko aldaketarik aurreikusten, baina etorkizunerako plan-gintza prest dute. Nitxoak egiteko proiektua behar denean aktibatuko da: "Momentuz ez dugu leku faltarik sumatzen. Etorkizunean, beharra sortzen denean, prest gaude proiektua martxan jartzeko", ondorioztatu du Zubillagak.

"Prest gaude proiektua martxan jartzeko"

Lontxo Zubillaga

Egun, ohiturak aldatu dira. Betelu eta Araitzen tamaina eta izaera desberdina izan arren, antzeko erronkak partekatzen dituzte: hilerriak egoki mantentzea, auzolanean lan egitea, profesionaltasuna eskaintzea, herritarren beharrak asetzea eta etorkizunerako proiektuak aurreikustea. Iriartek eta Zubillagak azpimarratu dute, aurreko sistemak eta tradizioak errespetatuz, elkarlana ezinbestekoa dela.

Azkenean, hilerriak ez dira gorpuzkien gordailu hutsak; komunitatearen memoria, kultura eta elkarlana ere badira. Hala, tradizio zaharrak desagertu arren, hildakoekiko errespetua eta bizi direnen ardura partekatuak indartsu jarraitzen dute, auzolanean lan egiteko prest dauden herritarrei esker.



Beteluko hilerria.

"Denon artean banatzen ditugu betebeharrak"

Lontxo Zubillaga



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



ARAXES ESKOLAN INSTALAZIO FOTOVOLTAIKO PARTEKATUAREN INGURUKO HITZALDIA JASO DUTE

Otsailak 11n, Beteluko Araxes eskolako LH6 eta DBH-1-2ko ikasleek hitzaldi-tailer interesgarrian parte hartu zuten. Goiener kooperatibako Asier Arsuaga Ugalde arribetarrak eskaini zuen saioa, eta bertan herriko instalazio fotovoltaiko partekatu berria izan zuten hizpide.

Beteluko Udalak eskolako teilatuan paratutako eguzki-instalazioaren ezaugarriak azaldu zituen Arsuagak, baita instalazioak hornituko dituen kontsumo puntuak ere: eskola bera, udal eraikina, ostatua, ostatu gaineko etxebizitzak eta elkarteak, besteak beste.

Saioan zehar, gainera, energia berriztagarri motak zerrendatu eta teknologia hauen alde onak eta mugak aztertu zituzten, eta erregai fosiletan oinarritutako sistemen eragozpenak ere jorratu zituzten. Ikasleek teknologiak alderatzeko aukera izan zuten, sortzen duten kutsadura, lehengaiak ustiatzeko modua eta horrek guztiak planetan eragiten duen aldaketa klimatikoa kontuan hartuz.

Ekimen horrek bat egiten du Beteluko Udalak energia eredu jasangarriago baterako bidean egin duen apustuekin.



ARGINDAR FAKTURA ULERTZEKO TAILERRA EGIN DUTE ARAITZEN

Dozena bat lagun inguru bildu ziren otsailaren 11n Araizko Udal Liburutegian, Sarabe Arakama Irigoien Komunitatea Eraldatzeko Bulegoko (KEB) kideak emandako argindar fakturen inguruko tailerrean. Ekitaldia Ostots energia komunitateak antolatu zuen; herriarrek argindar-kontsumoaren ñabardurak hobeto ezagutu eta erabakiak hartzeko gaitasuna indartzeko.

Partaideek argindar fakturaren osagaiak banan-bana aztertzei aukera izan zuten eta horrekin batera, espainiar estatuko sistema elektrikoa eta merkatu elektrikoa nola egituratzen diren ulertu.

Tailerrak formatu praktikoa izan zuen, eta bertaratuak beren faktura propioak eraman eta aztertu ahal izan zituzten, zalantzak bertan argitzeko. Ostots kooperatibako antolatzaileek balorazio positiboa egin dute eta aurreikusitako dituzten autokontsumo partekatuko bi instalazioak egin ondoren tailer berri bat egingo dutela aurreikusi zuten.

ESKUALDEKO HAINBAT HERRITAN EGIN DITUZTE 'IRABAZI ARTE' TELESAILAREN AURRESTREINALDIAK

'Irabazi arte' telesailaren bosgarren denboraldia hasi zen ETB1en otsailaren 6an. Estreinaldia baino lehen, lehenengo kapitulua herrian bertan ikusteko aukera izan zuten UEMAko kide diren herrietako hainbat haurrek eta gaztetxok. Horien artean, lehenengo aurrestreinaldia urtarrilaren 30ean egin zuten, Araizko liburutegian; ondoren, otsailaren 1ean Gabari Gune Irekian.





► 'ELKAR ZAINZEN' IKASTAROA ANTOLATU DUTE LEKUNBERRIN

Teknoadineko proiektuak 'Elkar zaintzen' taldea eta ikastaroa antolatu ditu bizitza ongizatearekin bizitzeko, harremanak lantzeko eta elkar laguntzeko.

Otsaila eta ekainan bi saio eskainiko dituzte hila-bete bakoitzean, eta lau talde sortu nahi dituzte: Altsasu, Etxarri Aranatz, Irurtzun eta Lekunberrin. Ikastaroan trebakuntza soziala, herrian parte hartzea, harreman berriak, komunikazio gaitasunak, elkar zaintza, ohitura osasungarrien sustapena, etab. landuko dituzte.

Interesa duten 65 urtetik gorako pertsonentzat izango da.

Izena emateko: teknoadineko@garaian.eus

Informazio gehiago: 613 136 448 (Oihane) / 613 136 446 (Idoia)



► ESKURAGARRI DAGO 'IBARDINGO ARTZAINA' ABESTIA

Fermin Balentziaren *La Pastora de Ibardin* kantua-ren euskarazko bertsioa kaleratu dute Mugarri eta Fermin Balentziak.

Julen Lezaunek, Mugarri taldeko biolin jotzaileak itzuli zuen abestia euskarara, eta Errotxapean grabatu zuten. Bideoklipa ordea, Ibardinen.

Euskara, migrazioa, oroimena eta mugako elkarbizitza lantzen dituen bideo ederra ikusi nahi baduzu, sar zaitez hurrengo web orrialdean: <https://labur.eus/nyxlbeow>

Gainera, Jabi Leoz eta Maitane Urbizu (Mugarri) izan ziren Aralar irradian abestia aurkezten. Entzun hemen elkarriketa: <https://labur.eus/mkg3x3sc>

MARTXOAREN 17AN GREBA OROKORRA EGINGO DUTE

Otsailaren 20an, batzar Irekia egin zuten Larraungo Udaletxeko Batzar Aretoan. Bertan, gutxieneko soldata propio eta duinaren beharra adierazi zuten. Erosteke ahalmena berreskuratzeke, nafar langileen egoera hobetzeko eta hemen erabakitzeke eskubideak aldarrikatu zituzten.

Ondorioz, martxoaren 17an, herriaren bizi baldintzak hobetzeko eta gutxieneko soldata hemen erabakitzeke mobilizazioa egingo dute.

M17

GREBA OROKORRA



●● Jose Luis Goldarazena (Lekunberriko bizilaguna), Gorka Azpiroz (Lekunberriko Taldeko zinegotzia) eta Arkaitz Goikoetxea (Lekunberriko alkatea).

Lekunberriko ur hornikuntzaren polemikatik, egokitzapenera



14

2021ean Lekunberrin uraren prezioa eztabaida iturri izan zen. "Faktura altuek" eta "gardentasun faltak" hainbat herritarren desadostasuna piztu zuten, eta kexak erakundeetara iritsi ziren. Gaur egun, ordea, udal gobernuaren aldaketarekin eta kudeaketa ereduan egindako moldaketekin, udalak eta bizilagunek, egoera bestelakoa dela diote.

Herritarren ikuspuntua

Jose Luis Goldarazena, Lekunberriko bizilagunarentzat, 2019ko udaberrian jaso zuen ur-faktura izan zen eztabaidaren abiapuntua. "Apirilean 96,91 euroko faktura jaso nuen eta ez zitzaidan batere ohikoa iruditu", gogoratu du. Ordura arte jasotako fakturak handiegiak zirela iruditu arren, ordainagiri hark Goldarazenaren kezka piztu zuen. "Ez ginen kezkatutako herritar bakarrak izan, askok sumatu zuten prezio igoera, baina lehenengo pausoa ematea zaila zen". Horregatik, Goldarazena kexa formala aurkeztea erabaki zuen eta handik gutxira, Iñaki Ganuza bizilagunare-

kin elkartu zen. Hala, elkarrekin uraren datuak biltzen eta aztertzen hasi ziren, eta taula konparatiboak osatu zituzten. "Uraren prezioa inguruko herriei alderatu ondoren, argi ikusi genuen Lekunberrin askoz garestiagoa zela, eta hura ezin zen justifikatu", azaldu du.

"Apirilean 96,91 euroko faktura jaso nuen eta ez zitzaidan batere ohikoa iruditu"

Jose Luis Goldarazena

Goldarazenaren hitzetan, "zenbakiekin frogatu genuen Lekunberriko uraren prezioa Nafarroako batez bestekoaren kanpo zegoela. Halaber, 2010etik aurrera uraren tasak igo egin ziren, eta 2012tik 2023ra urtero %2ko igoera aplikatu zen".

Azken urteotan, ordea, aldaketa nabarmenak izan direla onartu du. Udalak bere eskumenen barruan dauden tasak jaitsi baititu: hornidura-tasa %15 inguru jaitsi da (0,679 €/m³-tik 0,587€/m³-ra) eta estolderia-tasan moldatu da. "Gaur egun gutxiago ordaintzen dugu duela lau urte baino", azaldu du.

Hala ere, ñabardura garrantzitsua bat azpimarratu du: NILSA, Nafarroako Gobernuaren enpresa publikoaren saneamendu-kanona azken hiru urteetan nabarmen aldatu da. "NILSAren tasa 0,597 eurotik 0,77 eurora igo da, eta aurten, agian, 0,81era iritsiko dela dirudi. Igoera hori Nafarroa osoa izan da, eta horregatik Lekunberriko uraren prezio jaitsiera ez da fakturan hainbeste nabaritzen". Bere esanetan, udalak tasak jaitsi ez balitu, gaur egun "gehiegizko ordainketa" jasan beharko lukete herritarrek.

"Lekunberriko uraren prezio jaitsiera ez da fakturan hainbeste nabaritzen"

Jose Luis Goldarazena

Goldarazena argi du urteetako borrorak fruitua eman duela, "uraren tasa jaisterakoan arrazoi guzuek onartu dute. Gaur egungo udalak entzun gaitu. Hala ere gardentasun osoa eskatu nahiko nuke. Halaber, Lekunberriko uraren ur kostu zeha-

tza jakitea gustatuko litzaidake, eta horren arabera jarri dadila prezioa. Gehiago bada, ordainduko dugu; gutxiago bada, jaitsi dezatela. Hori besterik ez”.



Gorka Azpiroz,
Lekunberriko Taldeko zinegotzia.



Iñaki Ganuza eta Jose Luis Goldarazena
2021ean.
Argazkia: Labrit.



Arkaitz Goikoetxea, Lekunberriko alkatea.

“Baloratzen ez dugun luxua da txorrota irekitzea eta ura izatea”

Gorka Azpiroz

Lekunberriko Taldearen irakurketa

Gorka Azpiroz, Lekunberriko Taldeko zinegotziak, duela urte batzuk uraren prezioaren inguruan piztutako polemikaren ostean, egungo egoerari buruz hitz egin du: “egiari zor, herritarrak jasotzen dugun fakturretan ez dago alderik, nahiz eta faktura konposatzen duten kontzeptu batzuk jaitsi, faktura betetzen duten beste kontzeptuen igoerekin ez da batere nabaritzen. Herritar asko hurbildu dira hori esatera”.

Hala, uraren kudeaketa dirudiena baino askoz konplexuago dela azpimarratu du, “baloratzen ez dugun luxua da txorrota irekitzea eta ura izatea. Horrek atzetik sekulako azpiegiturak, lanak, zerbitzuak, kostuak eta kudeaketak ditu. Hori esanda, kalitatezko ura genuen eta dugu, bereziki, duela 15 urte Iribasen dagoen edateko uraren estazioa (ETAP) egin zenetik, eta kudeaketa profesionala beharrezkoa da. Gaur egun, lehen ere bezala, eta momentuz, kudeaketa ontzat eman daiteke bere osotasunean”.

Lekunberriko Taldeko zinegotziak nabarmendu du azken urteotan aldaketak izan direla tarifetan eta kudea-

keta ereduan: “saiatu izan da, baina patrikek orokorrean ez dute sumatu aldaketarik”.

Azpirozek Lekunberriko ur tasaren prezioa Nafarroako batez bestekoa- ren barruan dagoela defendatzen jarraitzen du, “NILSA-k egin zuen txostenean, uraren kudeaketa defizitarioa zela azaltzen zen, hau da, zehazki Lekunberri eta orokorrean Nafarroan gastatzen eta inbertitzen zen dirua ez zen tasekin erreperatzen. Kostuak altuagoak ziren (eta dira) prezioak baino. Eta hori, gutxinaka-gutxinaka erregulatu behar da”.

Lekunberriko Taldeko zinegotziaren arabera, informazioaren gardentasuna garrantzitsua izan da hasieratik: “Gu alkatetzan egonik fakturaren kontzeptuak argitu eta esplikatzen genituen. Horrez gain, uraren inguruko txosten luze bat argitaratu genuen. Azkenean, prezioa ez zen kostua baino altuagoa, eta beraz, zegoen, eta dagoen prezioa, ez da altua. Gardentasun aldetik legegintza honetan ez da parekorik egin, ezta hurbildu ere, ez baita ezer egin txosten horiek adibide”.

“NILSA-k egin zuen txostenean, uraren kudeaketa defizitarioa zela azaltzen zen”

Gorka Azpiroz

SAGARDOTEGIKO MENUA
Urtarriletik maiatzera
Ostiral gau eta asteburuetan

JUANLUZENE
SAGARDOTEGIA

948 604 571 - ODERITZ

Martitxonea
sagardotegia

Inaxio Begiristain

Aldatz
Nafarroa

948604607



Iribasko iturburua.

Azkenik, etorkizunean kudeaketa integrala eta bikaina bermatzea ezin bestekoa izango direla adierazi du. Ondorioei dagokionez, "udalerriko hainbat ataletan bezala, lana eta kudeaketa behar dira. Bizitzako hainbat alderditan bezala, falta denean sumatzen dugu faltan. Zentzuzkoak eta arduratsuak izan gaitezen, bai erabilitzaile, bai arduradun; bakoitza bere esparruan. Gaur arrunta iruditzen zaiguna ez dadin altxor bihurtu".

Udalaren azalpena

Arkaitz Goikoetxea, Lekunberriko alkateak, nabarmendu du Iribasko Ertzilla Iturburutik banatzen den ura kalitatezkoa dela. Halaber, egiten diren kontrolek emaitza onak ematen dituzte. Zerbitzuari dagokionez, ura "altan" Ertzilla Partzuergoak kudeatzen du, ura "bajan", berriz, Udalak. "Legealdi honetan eraldaketa prozesu batean sartuak gaude, eta pauso garrantzitsu batzuk eman dira: zenbait inbertsio egin dira zerbitzua hobetzeko, tasak berrantolatu egin dira, inguruko herriei elkarlana sendotu da Ertzillan, ur kontsumoen azterketa egiten ari gara", adierazi du alkateak. Tarifen berrantolaketari dagokionez, azterketa bat egin dute eta etxeko kontsumo baxuei tasa jaitsi egin zaie eta kontsumo altuei igo. Uraren fakturan NILSaren saneamendu-kanona

ere sartzen da. Azken urte hauetan igo egin dute kanona. "Adibide gisa, batez beste 35 m³ kontsumitzen dituen familia batek, Udalaren neurriekin (NILSaren kanona kontuan hartu gabe), 2026. urtean 50€ inguru aurreztuko ditu legegintzaldiaren hasieran indarrean zeuden tasekin alderatuta; NILSaren kanona kontuan hartuta, berriz, aurrezpen hori urtean 27 euro ingurukoa da. Kontsumo altuek, berriz, %8ko igoera izan dute", azaldu du Goikoetxeak.

Beraz, Lekunberri jasotzen duen ura Ertzilla Partzuergoak hornitzen du, eta Lekunberri partzuergoko parte da. "Aurreko legealdian gatazka iturri izan zen, baina legealdi honetan elkarlana sustatzen ari gara eta pixkana-pixkana emaitzak ikusten ari gara", adierazi du. Kudeaketa horretan, ur isuriak konpondu eta uraren kontsumo jasangarria sustatzea dira udalaren helburuak. "Aurten, adibidez sistema guztia digitalizatuko ditugu; 300.000 €-tik gorako inbertsioa izan da eta ur isuriak momentuan antzemateko aukera emango digu. Horri esker, lehenago hartzen ditugu neurriak. Halaber, Ertzilla Partzuergoak 1.3 kilometro hodi berritu du Iribasen, 500.000€-ko inbertsioa eginda. Bi inbertsio horiek hobetu egiten dute uraren hornidura zerbitzua", gaineratu du.

"Legealdi honetan eraldaketa prozesu batean sartuak gaude"

Arkaitz Goikoetxea

Hala, oraingo udalak uste du egungo tarifak lehen baino justuagoak direla, "estolderia tasa, adibidez, lehen denontzat berdina zen, eta orain gehien gastatzen duenak gehiago ordaintzen du. Ur horniduraren tasan ere norabide hori hartu dugu, baina oraindik badugu zer hobetu, dena den".

Alkateak dioenez, haien helburua zerbitzu jasangarria izatea da, uraren ziklo osoa aintzat hartu behar da kudeaketa diseinatzerakoan. Hala, uraren kontsumo arduratsua sustatzeko neurriak bultzatu dituztela eta herriko sare osoaren diagnostiko integrala egin dute: ur-baliabideen egoera, uraren kalitatea, ur-galeren kantitateak, kontsumoak, sarearen egoera, azpiegituren egoera...

Hala, uraren kontsumo arduratsua sustatzeko neurriak bultzatu nahi dituzte, eta uraren erabilera arduragabea saihestu, "herriko sare optimizatzen jarraitu behar dugu. Ur-galeren arazoa ere nabarmentzeko modukoa da; Lekunberri, adibidez, segundo bakoitzeko 5-6 litro galtzera iritsi izan gara zenbaitetan. Orain erdian gaude".

Horretaz gain, informazioaren gardentasuna kudeatzeko, gaur egun hiru hilabetetik behin herritarrei ur kontsumoaren faktura iristen zaie, eta uraren zerbitzua digitalizatzeko lanak bukatzen dituztenean,



Lekunberriko Udaletxea.

herritarrentzat tresna erabilgarria izango da, norberak egiten duen kontsumoaren datuak edozein momentutan eskura izango dituztela-ko programa baten bitartez.

litate bat da, "urarekin, energiarekin, espazio berdeekin eta honda-kinekin lotutako politikak ikuspegi integral batekin landu behar ditugu; hori dela eta, uraren kultura

berri baten ikuspegia landu behar dugu. Eta hori ezinbestean herritarrekin egin behar dugu, herri jasangarri baten bidean urratsak eginez", amaitu du alkateak.

"Lekunberrin, adibidez, segundo bakoitzeko 5-6 litro galtzera iritsi izan gara zenbaitetan"

Arkaitz Goikoetxea

Etorkizunari begira, azpiegiturak hobetzen jarraitu nahi dute. Epe motzean, espero dute Ertzilan ura ponpatzeko bonbaren arazoa konpondua izatea; urrian apurtu zen bonba eta Ertzilla Partzuergoan bideratzen ari dira. "Horrekin batean, lanean ari gara sagardotegi ondoko ura ponpatzeko bonbak berritzeko, eta aurrera begira depositu berria eraikitzea dugu agendan. Horrek autonomia gehiago emango lieke Ertzillako herriei edozein arazoren aurrean".

Azkenik, larrialdi klimatikoa erre-



Lekunberriko erreka ia gainezka, 2026ko otsailaren 14an.

**LeKUNBERRI
TABERNA**

9418 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
C/ Aralar, 14. baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberritaberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
J'ALMENTA ETA KONPONIZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

Errotaldeia 19,
Lekunberri

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

www.martillobiki.com
679 938 016

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasserie

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserío Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
UztEGI (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

**Iñigo Garaioa
MARGOLARIA**

696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

Korrika Kulturala hemen da

24. Korrikaren barne, Euskal Herriko hainbat tokitan ekitaldiak egingo dituzte. Eskualdean, otsailaren amaieran hasi ziren eta martxoan ere egitarau oparoa izango du Korrika kulturalak:

- ▶ **Martxoaren 13an** 19:00etan 'Andereño Rosita', Beteluko udaletxean. Sarrerak 5 euroren truke lortu daitezke, eta Korrikako laguntzaileentzat doan izango dira.
- ▶ **Martxoaren 14an** 17:00etan Eskulanak umeekin Allin.
- ▶ **Martxoaren 20an**, 18:00etan Eskulanak Arriben.
- ▶ **Martxoaren 23an** Korrika festa Lekunberrin eta Korrika festa Betelun.

Lasterka aritzeari dagokionez, martxoaren 23an igaroko da Larraun, Lekunberri, Betelu eta Araitzetik: Madotz (18:37), Astitz (19:03), Alli (19:23), Lekunberri (19:36), Lezaeta (20:34), Betelu (20:47), Arribe (20:54) eta Atallu (21:00).



18



Prest dute Martxoaren 8ko egitaraua

Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren harira ekimen ugari antolatu dituzte. Larraungo Berdintasun Mahaitik, besteak beste:

- ▶ **Martxoaren 8an**, 12:00etan, Manifestazioa Larraungo Udaletxetik Lekunberrira.
- ▶ **Martxoaren 11n**, 19:00etan, Pintxo dastaketa. Kattagorri Elkartearen, Lekunberrin.
- ▶ **Martxoaren 18an**, 18:30ean, 'Zazpikiak bat - Neskato onak' komikiaren aurkezpena, Uxue Alberdiren eskutik. Gabari Gune Irekian.
- ▶ **Martxoaren 21ean**, 19:00etan, 'Milagros eta Valentina' antzerkia, Lorena Arangoaren eskutik. Plazaola Kirolgunean, Lekunberrin.

Araitz eta Betelun, ordea, otsailaren 24an elkartu ziren, martxoaren 8ko egitaraua eta urteko agenda feminista elkarlanean osatzen hasteko. Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez mailpo.eus web-orrialdean.



**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**HOSTAL
BETELU**

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 · 663 97 67 09



ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA
okindegia



ARRIBE

ADI!!! TLF BERRIA:
680 102 689

Santa Ageda bezpera, etxez etxe kantuan ibiltzeko eguna

Santa Ageda bezpera izan zen otsailaren 4an eta eskualdeko hainbat herritan kalera atera ziren kantari.

Goizean, Araxes ikastetxeko ikasleek Beteluko Zahar Egoitzan santa eskean aritu ziren. Arratsaldean, berriz, Araxeseko ikasle, irakasle, guraso eta herritarrak "oles-oles" kantari aritu ziren. Hala, 80 lagun inguru elkartu ziren Azkaraten. Egun berezia ospatzeko, ikasleek asmatutako koplak eta Oskar Estanga bertsoak tartekatuz zituzten. Gainera, Beñat Pellejero eskusoinuarekin aritu zen eta ikasle batzuek trikitia eta panderoarekin girotu zuten bira. Ondoren, arratsaldea ederki amaitu eta merienda goxoa dastatzeko aukera izan zuten herriko elkartean.

Lekunberri eta Larraunen, aldiz, herritarrak baserritarrez jantzi ziren, eta kaleetatik barrena ibili ziren kantuan. Aurten, Etxarrin bukatu zen urtero egiten den Lekunberri eta Larraun ibarreko herrietako erronda. Eguraldi goibela izan arren giro ederra sortu zen, eta herriko kontzejuak eskerrik beroenak eman dizkie herri- hurbildu eta parte hartu zuten guztiei.

Arratsaldea biribiltzeko, merienda goxo batekin bukatu zuten herriko elkartean.



Santa Ageda bezpera Lekunberri.
Argazkia: Arkaitz Goikoetxea.



Santa Ageda bezpera Etxarrin.
Argazkia: Imanol Jaka.



Santa Ageda bezpera Araitz-Betelun.
Argazkiak: Idoia Garmendia.




CONSTRUCCIONES



ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



Construcciones
Gañarbe

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

Oztegin kalea 2, Lekunberri

construccionesganarbe@gmail.com

616 457 540

IHOTEAK 2026

Kolorez eta umorez
betetako hilabetea

Uitziko ihote ederren ondotik, Lekunberri, Aldatz, Bete-lu, Baraibar eta Gorritikoak ospatu dituzte. Dantzaldiak, bazkariak, kalejirak, karrozen desfileak... hainbat ekintza koloretsu izan dira aurtengoan ere!

Halaber, tradizioari jarraituz, Attezarko, Txerrizarka eta Kakomomo panpinak erre dituzte, besteak beste.

Amaitzeko, ez ahaztu, hurrengoak Gaintzako ihoteak izango dira, martxoaren 7an.



BETELU



Argazkiak: Ane Ubegun



Argazkiak: Juan Antonio Garaikoetxea



ALDATZ



GORRITI



Argazkia: Oihane Balda.

BARAIBAR



Argazkia: Anne Oreja.

Japoniar euskaldunaren irakasgaia

Donostian jaio nintzen familia euskaldun batean, euskara zigortuta zegoen garaian. Euskara etxe barruan soilik erabiltzen zen herri handietan. Aldiz, nekazaritza eskualdeetan mantendu zen ongi euskara. Dena den 1970eko hamarkadan hasita, euskara hasi zen berriz hartzen berea den tokia.

Garai hartan ere, hasi zen Olentzero Gabonetan kaleratzen. Zapiz eginda-ko panpina eramaten zen aulki batean eserita andanen gainean, atzean txistulariak eta ondoren herritarrak kantuka. Duela 40 urte inguru, Donostiako Alde Zaharrean nindoan Olentzero baten atzetik. Nire aurrean japoniar mutila suertatu zen, motxila bizkarrean, erabat irekita. Nik orduan ingelesez ez nekien eta zuzenean euskaraz egin nion. "Aizu, motxila irekita daukazu!" "Bai, bada-ki" erantzun zidan. Ez nintzen ohartu euskaraz ari zenik eta errepikatu nion esandakoa. Berak berdin egin zuen eta orduan jabetu nintzen euskaraz ari zitzaidala. Japoniako eta Frantziako Tolosako unibertsitateetan ikasi zuen euskara eta Donostiara etorria zen praktikatzera. Euskara maite zuen. Ikaragarri aberatsa eta ederra iruditzen zitzaion.

Bitxia da japoniar batzuk euskara ikastea baina guri dagokigu geure hizkuntza zaintzea. Arbasoek emandako oparia, altxorra, geure ardura da. Euskara euskaldun guztiona da eta euskarari berari zor diogu berau bizirik gordetzea, geure arbasoek egin bezala. Beraz, betebeharr kolektiboa dugu euskara maitasunez zaintzea.



“Piraguismoa naturarekin oso lotuta dagoen kirola da”



Ibai Tolosa Gomez eta Jesus Bandres Belzunce Espainiako 1. Sprint Kopan.
Argazkia: Iruñea Piraguismoa.

Ibai Tolosa Gomez jaiotzez Atarrabiakoa (Iruñerria) da, baina ia asteburuero joaten da Azkaratera, bertakoak baitira bere amona eta aitona. Txikitik Beteluko presan piraguismo ikastaro bat egin zuen, eta egun, Sevillako Guadalquivir ibaian entrenamendu intentsiboak egiten ditu, *Club Náutico Sevilla* taldean, hain zuzen. Halaber, kayak eta kanoa modalitateetan trebatzeaz gain, Munduko Junior txapelkunorde izan zen.

Nondik datorkizu piraguismoarekiko zaletasuna?

Zortzi urte nituenean hilabete erdiko piraguismo ikastaro bat egin nuen lagunekin. Bertan, bost egun igaro genituen Beteluko presan, beste bost Txaraman, eta Getarian amaitu genuen. Esperientzia hura asko gustatu zitzaidan eta aitak piraguismoan jarraitzeko proposatu zidan. Hala, Iruñeko Piraguismo Klubean izena eman nuen eta Arga ibaian entrenatzen hasi nintzen.

Zergatik aukeratu zenuen?

Hainbat kirol probatu ditut gaztetatik, baina piraguismoan lehen aldiz aritu nintzenean zaletasun naturala sentitu nuen. Oso kirol erakargarria iruditu zitzaidan. Gainera, piraguismoa naturarekin oso lotuta dagoen kirola da; betidanik izan naiz oso naturazalea, uretan ere oso gustura aritzen naiz igerian.

Nola uztartzen dituzu kirola eta ikasketak?

Lau urtez Murtzian ikasi nuen goi errendimenduko zentro batean Es-

painiako selekzioarekin. Ondoren, Sevillara etorri nintzen SICUE programaren bidez. Bertan, piraguismoarekiko zaletasuna oso handia da, eta kirola egiteko dauden baliabideak eta erraztasunak Iruñean baino askoz handiagoak dira. Esaterako, Guadalquivir ibaia ezin da Arga ibaiarekin alderatu. Gainera, jende asko dagoenez, klub gehiago eta handiagoak daude.

Egun, Jarduera Fisikoaren eta Osasunaren Zientziak ikasten ari naiz Sevillan. Une honetan hirugarren mailan nago. Bitartean, Club Náutico Sevilla taldearekin entrenatzen naiz; bertako klub handiena da, maila handikoa. Horrela, ikasketak eta kirola uztartzen ditut: goizak ikasten eta arratsaldeak entrenatzen igarotzen ditut.

“Goizak ikasten eta arratsaldeak entrenatzen igarotzen ditut”

Zein entrenatzaile edo erreferente izan dituzu piraguismoan?

Piraguismoan bi modalitate nagusi daude: kayak eta kanoa. Ni kayakean hasi nintzen eta geroago kanoara pasatzeko proposatu zidaten. Kayakean Espainia mailan dudak erreferente handiena Saúl Craviotto da, domina olimpiko gehien dituen piraguiista. Kanoa modalitateko erreferente nagusiak berriz, David Cal eta Sebastian Brendel dira.

Nolakoak dira zure entrenamenduak?

Kanoan hasi nintzenean, Iruñeko klubean ez zegoen jende askorik modalitate horretan, eta entrenatzaileek ez zuten ezagutza handirik. Beraz, elkarrekin ikasteko bideoak ikusten hasten ginen, bereziki Sebastian Brendel eta David Calenenak, haien teknika aztertzeko. Izan ere, piraguismoan indarra eta erresistentzia handia behar dira, baina teknikarik gabe indar horrek ez du ezertarako balio. Beraz, hasierako urteetan erreferenteen bila aritu nintzen.

Egun, Murtzian eta Sevillan, entrenatzaileek dagoeneko esperientzia handia dute eta entrenamendu planifikatu eta egituratuak egiten ditugu.

Zein da gehien gustatzen zaizun modalitatea?

Kanoan C1, C2 eta C4 modalitateak daude, txaluparen tamainaren eta motaren arabera sailkatzen direnak. Baina gehien gustatzen zaizkidanak C1eko 500 metroko probak dira. Izan ere, esprint modalitatean espezializatzen ari naiz, batez ere 1.000 metrotik beherako lasterketetan.

“Munduko bi txapelketatan parte hartu nuen”

Zeintzuk dira zure lorpen nagusiak?

Junior mailan nengoenean munduko bi txapelketatan parte hartu nuen: bata Italian eta bestea Hungarian. Italian, C2 modalitateko 1.000 metroko proban,

zazpigarren postua lortu nuen, Sevilako lagun batekin. Horretaz gain, C4 modalitatean, munduko txapeldunorde izan nintzen, Madrilgo, Sevillako eta Galiziako beste hiru piraguistarekin. Esperientzia ahaztezina izan zen.

Izan al duzu lesiorik edo momentu zailik?

Hunkitu egiten naiz gai honetaz hitz egitean. Espainian, apirilean eta maiatzean Munduko eta Europako Txapelketetara joateko hautaketa-prozesuak egiten dira. Hau da: urte osoan egindako lan guztia bi lehiaketan horietan jotzen da.

2023an, Italian munduko txapeldunorde izan eta gero, apirileko lehiaketa baino aste bat lehenago, erradioa eta kubitua hautsi nituen. Beraz, urte guztiko lana alferrikakoa izan zela pentsatu nuen. Hala ere, entrenatzaileek eta errehabilitatzaileek lan bikaina egin zuten, eta ahalik eta azkarren errekuaratzen saiatu nintzen.

Lehiaketa baino aste bat lehenago, poliki-poliki piraguara igo nintzen. Azkenean, lehiatu eta irabaztea lortu genuen. Ondoren, beste bi hilabetez entrenatzen jarraitu genuen, eta sanferminak baino lehen jokaturako Munduko Txapelketan berriro ere txapeldunorde izan ginen. Esperien-

tzia hori oso hunkigarria izan zen.

Zein dira zure hurrengo helburuak?

Duela bi urte 23 urte azpiko kategoriarira igo nintzen. Maila horretan gauzak asko aldatzen dira: jendeak lan handia egiten du eta emaitza onak lortzea zailagoa da. Beraz, lanean jarraitu nahi dut. Neure buruarengan konfiantza izatea eta aurrera jarraitzea dira nire helburu nagusiak. Halaber, etorkizunean lortzen duguna, ongietorria izango da.

“Goi errendimenduko piraguismoa sakrifizio handia da”

Zer da zuretzat piraguismoa?

Batxilergoan hasi nintzenean, Murtziako goi errendimenduko zentro batetik deitu ninduten. Han, lau urte igaro nituen: batxilergoko bi urteak eta unibertsitateko lehenengo bi urteak. Ordutik, piraguismoa nire bizitza izan da eta espero dut horrela izaten jarraitzea.


Hala ere, egia da ama, aita eta arreba urruti izan nituela Murtzian igaro nituen lau urte horietan. Baina Sevillan, etxetik urrun egon arren, askatasun handiagoa dut eta gehiago ikusten ditut.

Azkenean, goi errendimenduko piraguismoa sakrifizio handia da, baina ez nuke orain arte hartutako erabaki-

rik aldatuko. Distantziaren ondorioz txikitako laguntasun batzuk galdu arren, zorionez Azkarateko lagunekin harreman ona mantentzen jarraitzen dut. Oso kuadrilla polita osatzen dugu eta espero dut urte askotan horrela jarraitzea.



Guadalquivir ibaian entrenatzen.
Argazkiak: Ibai Tolosa.



Entrenamenduko une bat.

“Piraguismoa nire bizitza izan da eta espero dut horrela izaten jarraitzea”

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

Izarberri
Bar-Restaurante

Dastatu gure pintxoak, ogitartekoak, bazkariak, menuak eta hanburgesak!

Aralar 17, beheak | LEKUNBERRI

948 575 783

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Mariñones, GAITZA, Nafarroa
Ida. 649 472 057 — fax. 660 511 057
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

Guratz Azpiroz uitziarrak irabazi du aurtengo Oibarko Traila

Guratz Azpiroz Beunzak lehen postua lortu zuen otsailaren 15ean Oibarko Trailean. Helmugara iritsi zen lehenengo emakumea izan zen 10,5 kilometroko ibilbidean, 1:01:06 denborarekin.

Ez galdu Aralar Irratian egindako elkarriketa, entzun hurrengo web-orrialdean: <https://labur.eus/yqx7mrn0>



Guratz Azpiroz Oibarreko lasterketan.
Argazkia: Josetxo.



Ibai Soroa eta Xabier Zaldua.

Ibai Soroa eta Xabier Zalduaren aizkora apusturako sarrerak salgai dira dagoeneko

Ibai Soroa arribetarrak eta Xabier Zalduak aizkora apustua jokatu dute martxoaren 7an, arratsaldeko 18:00etan, Tolosako zezen plazan. Hamar kanaerdiko eta lau oinbiko enbor moztu beharko dituzte eta 8.000 euro izango dira jokoan. Beraz, hitzordua galdu nahi ez baduzu, sarrerak dagoeneko salgai daude: Arribeko Dendan, Urretxuko Krak tabernan, Tolosako Kantabri-kon eta Azpeitiko Mendizabalen.

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Mailope aldizkaria | **660 476 041** | info@mailope.eus

Albaitaritza
baserritarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Iruñea - Mendukilo Itzuliaren 2. etapa apirilaren 7an bitan igaroko da guretik

Apirilaren 7an, Itzuliaren bigarren etapa "Iruñea-Mendukilo Kobazuloa" izango da. Hala izendatu dute aurtengo World Tour mailako txirrindulariak ekarriko dituen lasterketak. Exijentzia handiko proba izango da, 164 kilometrokoa, hain zuzen. Hala, txirrindulari adituek etapa gogorra bizi beharko dute. Izan ere, Etxauri, Lezaun-Lizarraga, Zuarrarrate, Aldatz eta Aralarko San Migel igo ostean, zuzenean 19 kilometroko jaitsiera eta 3 kilometro igoera bizia egin beharko dituzte Mendukiloko kobazuloko helmugara iristeko.

Aralar irratian Iker Amarikak (Itzulia) kontatutako xehetasun guztiak entzun nahi badituzu, sar zaitez hurrengo web-orrialdean: <https://labur.eus/yqx7mrn0>



Lekunberriko Krosa martxoaren 15ean izango da

Datorren martxoaren 15ean, igandearekin, izango da Lekunberriko Krosa. Arruizko Txikitoren XXXVI. memoria ospatzeko, antolatzaileek betiko tradizioari eutsi diote. Aurtengoan ere proba goizez egingo dute, *Kaska Motz* ekimen solidarioaren alde.

Haurren lasterketa 10:45etan izanen da eta proba nagusia 12:00etan. Izena emateko epea zabalik dago <https://labur.eus/yqx7mrn0> web-orrialdean, eta bestela, interesatuek egunean bertan eman ahalko dute izena, goizeko 10:00etatik 10:30etara. 4,6 km-ko lasterketak 10 euroko kostua izango du, eta 9,2 km-koak 15 eurokoa.



2025eko Lekunberriko Krosako garaileak.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.

Bilaketa berriak

Gizakiak sinesteko beharra dauka, eta ez bakarrik erlijio, sineskera edo otoitz zaharretan. Gaur egun fedea zabalagoa da. Sinesten dugu algoritmoetan, ChatGPTk erantzun egoki, bakar eta zuzena eman go digulakoan, sinesten dugu "influencer" batek gomendatutako kremak, sinesten dugu, gure datuak eta bizitza mugikor txikien barruan sekretuan ondo gordeta daudela, sinesten dugu, erlojuak gure osasunaren inguruan esaten digunaz, sinesten dugu, norbaitek idatzitako horoskopoei, sinesten dugu "energia harrietan" eta motibazio bideoak dira mantra berriak "nahi baduzu, ahal duzu" eta ahal izateko ikastaroa 199€-tan salgai.

Sinesten dugu, sinesteak lasaitzen gaituelako. Ez jakintasunaren urduritasunaren kaosari forma ematen diolako. Bai, arraroa bada ere, ikusezinean fede itsua dauka askotan, ongiaren izenean sinetsi nahi dugu eta sinestarazten digute. Baina zer gertatzen da auzokidea etorkina denean, justu bizi den familia, beste azentu batean mintzo dena edo azal kolore ezberdinekoa... Haiei ez diegu federik eskeintzen. Beraiei konprobante eta justifikanteak eskatzen dizkiegu. Zintotasunaren ziurtagiria, ontasunaren eta kexa ezen kontratu mugagabea, banketxeko kontu korrontearen zenbakiak eta hiruzpalau erreferentzia moral. Eta dena kaixo esan aurretik.

Paradoxikoa, baimenik gabe entzuten gaituen gailua poltsikoak dugu, baina igo gailuan agurtzen gaituenaz mesfidati gara. Mundua hobea izan dadin otoitz egiten dugu, eta kalera irtetea, ez gara arrazistak, baina badaezpada, espaloiz aldatzen gara. Gizatasunean sinesten dugu... gure ondoan autobusean esertzen ez den bitartean.

Eta orain, fede nahikoa dugunez, goazen hastera koherentziaren bila.





Rural Bizi

RED RURAL DE NAVARRA
NAFARROAKO LANDA SAREA

LANDA EREMUA LOTZEN DUEN SAREA

Etorkizuna landa eremuko da



@ruralbizi

RURALBIZI.NAVARRA.ES



Gobierno
de Navarra

Nafarroako
Gobernua



otsailaren 26tik
martxoaren 18ra
errigora.eus



ESKUTIK ESKURA EGITEN DUGU HERRIA



Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko**
oliba-olio birjina estra, kontserbak, ardoa,
arroza, pasta eta lekaleak **euskaraz**
etiketatuta eta jatorrizko prezioan

Hitzaspertuan



●● Agurtzane Altuna

Erreuxe

Erreuxe: eskaxa, onartzen ez dena, baztertzen dena, balio ez dona.

Dozena erdiet hamarkadatik gora badee ume ttiki-ttikiet jaio zela herri politt eta aldapatsuetean, hemendik ez oso aparte. Beltx-beltxa, illezue ta ttikie; oso ttikie. Bost erditze goorren ondoren, bosgarrena. Nexkatoa. Ama gauze ez, eta izoak zeamakin kapaxoan bil-bil inda, aldapan gora, zehar-zehar, barrotiz barroti, lotsa ematen ziola-ko halako gauze eskaxa eakusteak re.

Allaatu dee kabi izango zun etxeaño; herrien goinean zeon baserri txuri txabal bat izango zun sortetxeaño eta, amona, matriarka, sutondoan zai-zai. "Hauxe don erreuxe".

Erreuxe: eskaxa, onartzen ez dena, baztertzen dena, balio ez dona.

Zaborrakin re gauze bera pasatzen da. Erreuxe o errefuxe, birziklatzeko balio ez dona. Beste koloretan, beste inon enkajutzen ez dona. Ez da hori, ez urdin, ez naranja, ez marron! Hau marka, dena etiketatu, dena sailkatu, dena markatu beharra, eta halai batzuk beti lekuz kanpo. Markatutako kolore eta formatan kaitzen ez dena, baztarrea; erreuxe. Neskato ttiki hue bezalaxe.

Eskerrak etzekoan babesak eta maitasunek definizio guztik hankaz goratzen ditton. Baina, ez beti. Ezto halakoik sentittuko kale baztarrean eskean ai den harrek. Zenbat laun ikusi dittuu belauneko makurtuta, burue iztarretan sartu eta bi eskuk koapillatuta kalean eskean. Harrek ez do beitturik altxatzen, bere izate hutsez lotsatuko balitz bezala. Eta bestelakoa bada re, lotsak jiratuazten digu beitture presaka parean pasatzen gean beste guztiri re. Errefuxatutako errefuxai parez pare beitzeko lotsak.

Eta hizkuntze bea re nola gauze bihurrie den, erreuxe, errefuxe, errefuxatu, errefuxiatu, hizki batzun gora-beheran nola aldatzen den pelikula. Berea ez don herrialde batean babes hartzen don pertsona da errefuxiatue. Batetik bestea, non sartu ez dakila daille-na; hausitako platera bezalaxe. Eta ez bat, ez bi; ez zientoat, ez bi; ez dee gutxi aurrena been herrin errefuxatu eta geo beste batean errefuxiatuz bizi deenak. Garai batean sobra guztik botatzen zeon txerri-pertzea. Eta gaur txerri-pertza haundiet bihurtu zaigu mundue. Errauste-planta erraldoi bat, bestela; eo erreuxe planta esan beharko giñuke?

Bai gauze bihurrie den, ... hizkuntza?

● ● Enrike Solinis Azpiazu (Bilbo / Azkarate).

“Ez dugu pop musikarik sortzen”



Enrike Solinis eta Miren Aizpurua.
Argazkiak: Ane eta Jose.

Azkaraten bizi diren Miren Zeberio eta Enrike Solinisek, *Euskal Barrok Ensemblerekin* batera, *Xirribit* disko-liburua argitaratu dute. Haur eta gazteen musika egoerari beste ikuspuntu bat eskaintzeaz gain, euskal mitologia eta antzinako musika uztartu nahi izan dituzte. Hala, *Euskelelea* ipuin musikatuaren arrakastaren ondoren, arrabita-irato magikoaren istorioa aurkeztu dute. Taldeko ohiko musikariez lagunduta eta Maika Etxekoparren narrazio bikainarekin; musika herrikoia, Enrike Solinisen pieza berriak zein errenazimentu eta barrokoko doinuak partekatzen dituen ipuin xarmagarria kaleratu dute.

Nola sortu zen *Xirribit*?

Miren Zeberio eta biok konturatu ginen haurrentzat euskarazko, kalitatezko eta musikaren inguruko edukiak lantzen zituen proposamen baten beharra zegoela. Horregatik, *Euskelele* proiektua duela hiru urte jaio zen eta ondoren, haren jarraipena: *Xirribit* ipuin musikatua.

“Euskal Barroko Ensemblerekin antzinako musika lantzen dugu”

Euskal Barroko Ensemblerekin antzinako musika lantzen dugu. Musikalki Claudio Monteverdiren Orfeo operatik abiatu ginen, mitoarekin lotura zuzena baitu istorioak: azpimundura jaitziera, galera eta itzulera. Hala, pieza klasikoak eta gure konposizioak uztartu genituen, eta nik, jatorrizko pieza horiek haurrentzako egokitu eta moldatu nituen. Horrela, ez dugu pop musikarik sortzen; egun ohikoak ez diren doinuak, tradiziozko musika eta instrumentuak ikuskarazi nahi

baititugu. Hala, entzule gazteei beste soinu-unibertso bat ezagutzeko aukera eskaini nahi diegu.

Zertaz hitz egiten du *Xirribitek*?

Xirribit, *Euskeleleren* laguna da. Lehenengo ipuinean sokazko instrumentuak eta ukelelea landu genituen; oraingoan, arkuarekin jotzen diren instrumentuak, biolinaren familia-koak.

Ipuinean gertakari harrigarriak daude: bidaia bereziak, magia, laminek laguntza... Halaber, benetako pasarte historikoak gehitu ditugu, hala nola Jean-Baptiste Lully XVII. mendeko musikari frantsesari gertatutakoa. Hala ere, gure liburuan ez dago amaiera dramatikorik; Lully, 1687an hil baitzen Parisen, gangrenak hartuta.

Horretaz gain, argazki kamera magiko bat ere badago gure istorioan: haren fokupean hartutako objektu oro desagerrarazi eta horren tokian hutsunea uzten baitu kliska bakoitzean. Hala, *Xirribitek* argazki kamera horren barrenean harrapatuta amaituko du; eta kamera bera hark sortutako hutsu-

ne batetik eroriko da, *Xirribit* barruan duela. Laminek laguntzaz, *Euskelelek* aterako du *Xirribit* Lurraren barrenean.

Hainbat istorio daude liburuan eta horien guztien bidez, haurrek musikaren historia modu atseginean ulertzeko aukera izango dute.

Bi ipuinetan Juan Kruz Igerabide aritu da testua lantzen...

Bai, Juan Kruz Igerabide laguna eta idazle bikaina da. Lehen probak Tolosako ikastolan egin genituen eta Igerabidek gure ideiak ipuin literario bihurtu zituen. Hasieratik primeran ondu zuen ipuinen mamia. Beraz, *Euskelelean* emaitza onak lortu genituenez, berdin egitea erabaki genuen *Xirribiten*.

Testua eta musika, ilustrazioekin lagundu dituzue...

Xirribitek Irene Iruretaren ilustrazioak ditu. *Euskelelean* Karmen Irrimarrak ere parte hartu zuen, baina azkenean Irenerekin jarraitzea erabaki genuen. *Xirribiteko* marrazkiak eskuz eginak dira, estilo aldetik desberdinak, baina bi lanak oso ederrak dira.



Bilboko Arriaga antzokian egindako ikuskizuneko une bat.

"Benetako pasarte historikoak gehitu ditugu"

Non entzun daiteke Xirribit?

Oraingoz ez dugu CD fisikorik plazaratu, baina QR kode baten bidez deskargatu daiteke Erlea argitaletxearen webgunetik: (www.erlea.eus eta www.ebe.eus).

Gainera, plataforma digital guztietan entzun daiteke. Hala ere, etorkizunean CDa argitaratzeko aukera ere ez dugu baztertzen.

Euskelelea argitaratzerakoan Erlea argitaletxea sortu zenuten. Beharrezkoa izan zen ala zuen erabakia? Hasieran Jordi Savall musikari handiaren babesa izan genuen; haren argitaletxeetan plazaratu genituen gure disko gehienak.

Baina proiektu hau oso berezia zen: euskal gaiak lantzen zituen, haurrei zuzendua zen... eta halako lan bat argitaratzea ez da batere erraza. Horregatik gure kabuz Erlea argitaletxea zabaltzea erabaki genuen; bai gure lanak eta bai beste antzeko proiektuak argitaratzeko.

"Erlea argitaletxea zabaltzea erabaki genuen"

Pello Reparazek sortutako Mitoarora egitasmoan parte hartu duzue. Nolako esperientzia izan zen?

Mitoarora egitasmoan parte hartzea oso esperientzia berezia eta zoragarria izan zen. 14.000 pertsonaren aurrean inprobisatzea izugarria izan zen, eta hasieran urduri sentitu arren, instrumentua jotzerakoan lasaitasuna nagusitu zen.

"Pello Reparazen apustua oso ausarta eta txalotzekoa izan da"

Mitoarora egitasmoan euskal barrokoari ikusgarritasuna eskaini dio?

Bai, zalantzarik gabe. Ikusle gehienek Mitoarora ikusi eta ezagutu dituzte gure instrumentuak. Pello Reparazen apustua oso ausarta eta txalotzekoa izan da. Horrelako ekimenek musika



desberdina eta instrumentu tradizionalak ikuskarazten ditu.

Noiz ikus daiteke berriz Euskal Barrok Ensemble oholtza gainean?

Datozen hilabeteetan hainbat emaldi eskainiko ditugu, Euskal Herrian batez ere. Gainera, Euskal Herriko Orkestra Barrokoa sortu dugu, Galdakako egoitzan egindako erresidentzia baten ondoren.

Informazio gehiago nahi baduzu, sar zaitez hurrengo web-orrialdeetan:

www.erlea.eus

www.orkestrabarrokoa.eus

TALLERES GOÑI
CHAPA Y PINTURA

- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN

680 859 938 • 948 500 166 • CHAPIGO@GMAIL.COM

Labirintoa



Lagundu Nereari eskolako zorroa betetzen. Klipak falta ditu, bai eta txorroskiloa, arkatza eta azpimarratzeko errotulagailu arrosa ere. Pasa zaitez elementu horiek dauzkaten laukietatik banan-banan, gora, behera, aurrera edo atzera eginez (inoiz ez diagonalean). Hurrenkera errespetatu (🐛, 🐜, 🐞, 🐌), eta kontuan hartu klipak eta txorroskiloak kolore askotakoak izan daitezkeela. Bidean aurkitu dituzun hizkiak batu eta esaera polit bat agertuko zaizu.



Batu hemen laukiz lauki topatu dituzun hizkiak.

Handienetik txikienera



Ordena itzazu guraize hauek handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 5.

Sudokua



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak ESKOLA hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (E, S, K, O, L eta A). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Bete itzazu hutsuneak domino zati honek zentzua izan dezan.

dominoak



Kontsultatu soluzioak:

www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak

AGENDA

MARTXOA

- 3- 17:30 Donibane Zinema.
Gizarte Etxea (Lekunberri).
- 6- 18:30 'Esnatu ala hil' liburu aurkezpena. Printza.
19:30 Hitzaldia Aitor Pescadorren eskutik.
Gabari Gune Irekia.
- 7- Gaintzako inauteriak.
- 8- Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna.
12:00 Manifestazioa Larraungo Udaletxetik
Lekunberrira.
- 10- Ihes gela goiz osoan LH 4, 5 eta 6.
mailakoentzat. Ibarberri Ikastetxe Publikoa
(Lekunberri).
18:00 Aralar Udal Musika Eskolaren audizioak.
Gabari Gune Irekia.
- 11- 17:00 Aralar Udal Musika Eskolaren audizioak.
Gabari Gune Irekia.
19:00 Pintxo dastaketa. Kattagorri Elkartea
(Lekunberri).
- 13- 19:00 'Andereño Rosita'. Sarrera: 5€ (Korrika
laguntzaileentzat doan). Beteluko Udaletxea.
- 14- 'Euskaraz bai!' tailerrak: Korrika. Alli.
20:30 Bertso afaria. Bertsolariak: Julio Soto eta
Iker Zubeldia. Arribeko elkartea.
- 15- Lekunberriko Krosa.
- 18- 18:30 'Zazpikiak bat – Neskato onak' komikiaren
aurkezpena, Uxue Alberdiren eskutik.
Gabari Gune Irekia.
- 20- 18:00 Eskulanak Arriben.
- 21- 19:00 'Milagros eta Valentina' antzerkia, Lorena
Arangoaren eskutik. Plazaola Kirolgunea
(Lekunberri).
- 23- Korrika Larraun, Lekunberri, Betelu eta
Araitzen: Madotz (18:37), Astitz (19:03), Alli
(19:23), Lekunberri (19:36), Lezaeta (20:34),
Betelu (20:47), Arribe (20:54) eta Atallu (21:00).
- 28- 'Gure armak, gure ahotsak' Aralar Udal Musika
Eskolaren kontzertua. Plazaola Kirolgunea
(Lekunberri).



IREKITA URTARRILETIK ABUZTURA

PERKATZENEÀ
SAGARDOTEGIA

655976206 San Anton, 20
649648669 31879 Madotz
www.perkatzenea.eus



IRURA

IRURA URDAITEGIA
Kale Nagusia, 20 | IRURA 943 691 376
www.irura.com

PUBLIZITATEA MAILOPEN

Mailope aldizkaria
660 476 041
info@mailope.eus

IORTIA CLÍNICA DENTAL - HORTZ KUTXIA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

**aitz
berri**

edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
PRESOTERAPIA
PODOLOGIA
LASER DEPILAZIOA ETA
DEPILAZIO ELEKTRIKOA
JENDE HELDUARENTZAT
ETXEZ ETXeko ZERBITZUA.
MIKROPIGMENTAZIOA
EZPAINETAN
MIKROBLADING
BEKAINETAN

@aitzberri

ETXE BAT BAZKIDE BAT

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE ETA ZUZENEAN
URTE GUZTIAN ZEHAR EGINEN DIREN ZOZKETETAN
PARTE HARTUKO DUZU!



EMAN PAUSOA!

50€ URTEAN

MAILOPE

BAZKIDE EGITEKO BIDEAK:

info@mailope.eus

660 47 60 41